

SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTUEN ESTATISTIKAK. 2022

Euskal AEko Administrazioen zor biziak ehuneko bi puntu egin du behera BPGren terminoetan 2022an, % 15,2raino

Inbertsioak eta kapital-transferentziak % 33,7 gehitu dira 2022an, eta 2.439 milioi eurora iritsi

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Administrazio Publikoen zorra 13.150 milioi eurokoa izan zen 2022ko abenduaren 31n. Horren barruan sartzen dira Eusko Jaurlaritza, Foru-Aldundiak eta Udal-Administrazioak, dagozkien Erakunde Autonomoekin eta Udalez Gaindiko eta Azpiko Erakundeekin batera. Aipatutako zifra hori BPGren % 15,2 da, eta % 17,2 izan zen 2021eko abenduaren 31n. 2022an hartutako pasibo berriak 821,8 milioi izan ziren, eta amortizazioak 1.108,9 milioi. Nabarmentzekoa da azken ekitaldian amortizatze dagoen zenbatekoa 287 milioi euro murriztu dela, eta horrek ehuneko 2 puntuko jaitsiera ekarri du.

2022. urtearen amaieran amortizatze zegoen zor biziaren guztizkotik, Eusko Jaurlaritza % 78,7 izan zen, ondoren Bizkaia % 12,3, Arabak % 5 eta, azkenik, Gipuzkoa gainerako % 4.

Erakundeen arabera, Eusko Jaurlaritzak 275 milioiko aurrekontu-saldo ez-finantzario positiboa izan zuen. Lurralde-administrazioen artean (Foru Aldundiak eta Toki Erakundeak), saldo positiboak izan ziren lurralde guztietan: Bizkaia nabarmentzen da 390 milioiko saldoarekin, ondoren Gipuzkoa 192 milioirekin eta, azkenik, Araba 94 milioiko saldo positiboarekin.

Euskal Administrazioen datu finkatuak (milaka euro). 2022

	Guztizko bateratua	Eusko Jaurlaritza	Araba / Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
SARRERA ARRUNTAK	20.261.243	12.343.266	3.121.158	10.214.021	6.440.943
GASTU ARRUNTAK	17.615.671	11.337.732	2.942.448	9.204.518	5.989.117
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	2.645.572	1.005.534	178.709	1.009.503	451.826
KAPITAL-SARRERAK	744.878	607.878	64.791	127.530	109.052
KAPITAL GASTUAK	2.438.570	1.338.158	149.165	747.125	368.495
AURREKONTUSALDO EZ-FINANZARIOA	951.879	275.253	94.335	389.908	192.383
ZOR BIZIA (22-12-31 amortizatzeke)	13.149.880	10.348.458	662.287	1.619.073	520.063

Data 2024ko Ekainaren 21a

Iturria: Eustat. Sektoe Publikoaren Aurrekontuen Estatistikak

Euskal Administrazioek erregistratutako gastu eta sarreraren xehetasuna eginez gero, gastu osoari dagokion zatia 21.622 milioi eurokoa izan zen, hau da, aurreko urtean baino % 9,3 gehiago. Bestalde, diru-sarrerak 21.669 milioira iritsi ziren, 2021ean baino % 0,2 gutxiago.

Eragiketa ez-finantzarioei dagokienez, diru-sarrerek eta gastuek bilakaera positiboa izan zuten 2021aren aldean, izan ere, gastuak % 8,7 eta sarrerak % 6,2 hazi ziren. Emaizta hori *Aurrekontu-Saldo Ez Finantzarioan* islatzen da, zeina positiboa izan baitzen 952 milioi eurotan 2022an, 2021ean 1.344 milioi euroen aldean.

Euskal Administrazioen likidazio finkatua (milaka euro). 2021-2022

	2021	2022	Gehikuntza (%)
SARRERAK GUZTIRA	21.705.632	21.668.811	-0,2
ERAGIKETA ARRUNTAK	19.265.203	20.261.243	5,2
Zerga-sarrerak	16.732.123	18.149.214	8,5
PFEZ	6.152.215	6.541.284	6,3
Sozietate-zerga	1.166.218	1.359.629	16,6
BEZA	6.266.824	7.088.551	13,1
ZERGA BEREZIAK	1.547.714	1.446.593	-6,5
Udal zergak	782.028	774.760	-0,9
BESTE ZERGA BATZUK	817.124	938.396	14,8
Bestelako sarrera arruntak	2.533.080	2.112.029	-16,6
KAPITAL ERAGIKETAK	519.455	744.878	43,4
ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOAK, GUZTIRA	19.784.658	21.006.121	6,2
FINANTZA ERAGIKETAK	1.920.974	662.690	-65,5
GASTUAK GUZTIRA	19.786.990	21.621.697	9,3
ERAGIKETA ARRUNTAK	16.616.898	17.615.671	6,0
Pertsonal gastuak	4.207.523	4.447.528	5,7
Transferentzia arruntak	5.820.428	6.256.412	7,5
Beste gastu arrunt batzuk	6.588.946	6.911.731	4,9
INBERTSIOAK ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	1.823.973	2.438.570	33,7
ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOAK, GUZTIRA	18.440.872	20.054.242	8,7
FINANTZA ERAGIKETAK	1.346.118	1.567.456	16,4
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	2.648.305	2.645.572	-0,1
AURREKONTUSALDO EZ-FINANTZARIOA	1.343.786	951.879	-29,2

Data 2024ko Ekainaren 21a

Iturria: Eustat. Sektoare Publikoaren Aurrekontuen Estatistikak


Diru-sarrera ez-finantzarioen hazkundera *diru-sarrera arrunt* bilakaera positiboan oinarritu zen (% 5,2), sarrera guztien % 93,5 izan baitziren. Kapital-eragiketengatiko diru-sarrerak, bestalde, % 43,4ko igoera esanguratsua izan zuten.

Bestalde, **finantza-eragiketen** azterketari dagokionez, bilakaera desberdinak ikusten dira diru-sarreraren eta gastuen artean: diru-sarrera finantzarioak 663 milioi eurora iritsi ziren, aurreko urtean baino % 65,5 gutxiago; gastu finantzarioak, bestalde, igo egin dira 2021aren aldean (1.567 milioira) eta % 16,4ko hazkundera izan dute.

Euskal Administrazioen **zerga-sarrerak**, 2022an, eragiketa arruntengatiko sarreraren % 86,9 hartu zuten. Oro har, portaera positiboa izan zuten, 18.149 milioi eurotan kokatuz, aurreko urtean baino % 8,5 gehiago.

Ekarpenik handiena duten zergak hurrengoak dira: BEZa (% 39,0 eta % 13,1eko igoera) eta PFEZa (% 36,0 eta % 6,1eko igoera), 2021aren aldean. Sozietateen gaineko Zergak izan zuen igoerarik handiena (% 16,6), baina bere pisua askoz txikiagoa da, % 7,5ekoa. Beste Zergek, % 14,8ko igoerarekin, zerga-sarrera guztien % 5,2ko ekarpena egiten dute. Aurreko urtearen aldean jaitsi ziren zergak Zerga bereziak (% 6,5) eta Udalekoak (% 0,9) izan ziren. Lehenengo kasuan, zerga guztien % 8 dira, eta bigarrenetan, % 4,3.

Euskal AEko administrazioen zerga-sarreraren banaketa. 2022



Iturria: Eustat. Sektore publikoaren aurrekontuen estatistikak

Beste sarrera arruntak – tasak, transferentziak eta ondarezko sarrerak, besteak beste – eragiketa arruntengatiko sarrera guztien % 10,4 izan ziren, eta % 16,6ko jaitsiera izan zuten.

Gastuen partidei dagokienez, **gastu arruntak** % 6,0 gehitu ziren. Hazkunde hori, batez ere, Transferentzia arrunten partidak eragin zuen, gastu guztien % 28,9ko pisuarekin, % 7,5eko hazkundera izan baitzuen 2021aren aldean. Ondoren, Pertsonal-gastuak, % 20,6ko pisuarekin, % 5,7ko hazkundearekin. Beste gastu arruntak: % 32, % 4,9.

Inbertsioetako eta kapital-transferentzietako gastuak guztizkoaren % 11,3 izan ziren, eta aurreko urtearen aldean % 33,7 gehitu ziren.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62